

Modu ezinhobean amaitu dira aurtengo Sanjuan jaiak!

- **Eguraldia lagun, jaiak modu biribilean amaitu ziren atzoko azken emanaldi jendetsuei esker**
- **Jai batzordearen balorazio sakonago baten esperoan, udal gobernuak modu positiboan baloratzen ditu aurtengo festak**

Andoainen, 24-06-26.- Bost egun intentsoren ostean, amaitu dira aurtengo Sanjuanak; baita aho zapore gozoarekin amaitu ere! Eguraldia lagun, Puro Relajo talde nafarrak dantzan jarri zituen Goikoplazara bildutako hamarnaka lagunak, eta CavalTHEOS taldearen kalejira piroteknikoak gazteenak goxatu zituen jaien azken orduetan.

Baina horiek bezala, jaietan izan dira bestelako ekitaldi jendetsuak ere: Mucedades edo Gatibu taldearen kontzertuak, zer esanik ez egunero egon diren herriko musika taldeenak, Axeri dantza, txuleta jana, herri kirolak, bertso saioa, 'Pelontxu'-ren moto erakustaldia, Warhammer torneo... aurtengoan egitarauan azken aspaldian antolatzen diren ekimen eta ekintzak izan ditugu, baita hainbat ekintza berri ere; guztien konbinazioak eragin du egitarau koloretsua, parte-hartzailea eta mamitsua izatea.

Zalantzarik gabe, eguraldiak hainbat ekintza baldintzatu ditu, baina guztietan esan dezakegu andoaindarren parte-hartzea handia izan dela, eta horrek eman dio ikusgarritasuna aurtengo jaiari. Gainera, nabarmendu beharra dago ez dela aparteko intzidentziarik izan jaietan, eta oro har, lasaitasunean igaro direla. Puntu Moreak ez du intzidentziarik erregistratu, baina argi dugu bide honetan lanean jarraitu beharko dugula.

Sanjuanetako jai batzordeak egingo duen balorazio sakonago baten esperoan, aurtengo jaiak modu positiboan baloratzen ditu udal gobernuak. Lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkiogu jaiak posible egin dituzten guztiei: udal langileak, talde eragilea, herriko talde eta elkarteak, andoaindarrak...

Aurtengo jaiak emandakoa baloratzeko unea iritsi da orain, hurrengo urtekoak are eta hobetoagoak izan daitezten.

